



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2012ko MAIATZAREN 29an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2012ko maiatzaren 29an, Alkizako Udaletxean, gaueko 21.00etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Ainara Sarasola Arsuaga
Uxue Etxebeste Eizagirre
Koldobika Jauregi Zinkunegi.

Bere ezin etorria azaltzen du: Ainara Zurutuza Ilundain

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - 2011ko apirilaren 24an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Beste batzuk.**
5. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2012ko apirilaren 24ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

10/2012 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 8koa, S.R. andreari zigor-espeditzea irekitzea, ebazten duena.

11/2012 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 16koa, Alkizako diagnostiko estrategikoa idatzi eta dokumentu horietatik abiatuz, Alkizako II. Tokiko Ekintza Plana diseinatu eta jarraipena egiteko lanak Inguru 21 S.L. enpresari (Izadi 21) esleitzea, ebazten duena.

12/2012 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 28koa, faktura txikien zerrenda onestu eta ordainketa burutu dadila agintzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- CHRISTIAN BRASE	2.618,26€
- TOLOSALDEA GARATZEN	240,00€
- IZADI LABORATEGIA	145,14€
- BDATEK	212,40€
- ALKORA	1.237,50€
- ELECTRICIDAD ZIZURKIL	573,83€
- TINDU MARGOAK	129,42€
-ARGITU ASESORES	133,52€
- IGNACIO DIAZ GOENA	318,60€
-BERRI LANTEGIA	93,85€
-IZFE	384,11€
-IZFE	384,11€
-ZURI ARRAIN	191,75€
- PERFYDE	147,38€
- HIERROS Y METALES GANZARAIN	300,00€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- ITURRALDE	159,44€
- IZFE	384,11€
- EINBER	697,75€
- REPSOL GAS	184,25€
- REPSOL GAS	523,71€
- REPSOL GAS	395,05€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **9.454,18** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARRENGO PUNTUA
BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

BOSTGARRENGO PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ondorengo mozioa aurkezten da:

“ Tolosaldea Osasun Publikoaren alde” koordinakundeak, honako adierazpena egiten du Alkizako Udaleko Udalbatzak eztabaida eta onar dezan.

ZIOAK:

2011ko azaroa ezkerostik Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak TOLOSALDERAKO OSASUN ARRETA EREDU BERRIA inposatu digu herritarroi. Proiektu berri honetan, Izaskungo Ama Espezialitateetako Anbulatorio publikoa isteko erabakia hartzen da, espezialitate guztiak Asuncion Klinika pribatu-kontzertatuaren esku geratuko direlarik. Horren ondorioz osasun sistema publikoa kaltetua eta ahulduta geldituko da Tolosan zein Tolosaldean, Andoainen eta Legorretan.

Bestetik, Tolosa da sare publikoko Eskualde Ospitale Publikoa ez duen Euskal Herriko eskualde bakarra, eta egitasmo honekin horrela jarraituko du.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Tolosaldeako eskualdeak indar eta pisu demografiko nahikoa du, herritarroi egokia izango zaigun kalitatezko zerbitzu bat eskainiko digun ESKUALDE OSPITALE PUBLIKOA izateko. Beste eskualdeetan bezalaxe.

Hori guztiagatik mozio hau aurkezten da Alkizako Udalaren Osoko Bilkuran, honako hau

ONAR DEZAN:

Mozio honen edukia hau izango da:

- 1.-Asuncion Klinikaren publikazioa eskatzen dugu. Eskualdeak kudeaketa erabat publikoko Eskualdeko Ospitale Publikoa izan dezan.*
- 2.-Osasun zerbitzu honek, beste eskualdeetan eskaintzen denaren mailako kalitatea bermatzea eskatzen dugu.*
- 3.-Afera honek eragiten dien alde guztien artean (Osasun Saila, langileen ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundia, eskualde horretako Udalak, plataformaren ordezkariak) alderdi anitzeko mahaia osatzea eskatzen dugu. Mahai honek definituko duen klinikaren publikazioa (epeak, zerbitzua hobetzeko eta garatzeko plana, langileen subrogazio zein erregulaziorako bidea).*
- 4.-Mahai honek publikazioa egiteko moduaren gaineko akordioa eskuratu beharko du lehenbailehen. Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzak sinatutako konbenioaren ondorioz hartzen ari den neurri guztiak bertan behera utz ditzala eskatzen dugu: espezialitateen ambulategia hustea horren adibide.*
- 5.-Klinikaren egitura enpresarialak egindako balizko iruzurrak eta legezkantzoak ikertzea.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU.

BAKARRA: Tolosaldea Osasun Publikoaren alde koordinakundeak aurkezturiko adierazpena bere osotasunean onestea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.45 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)